

1.-Hitz egin- Haurra umetokiaren barruan dagoenean zer entzuteko gai da?

~Amaren ahotsa eta bihotz taupadak 18. astetik aurrera.

=24. astetik aurrera amaren ahotsa, bihotz taupadak eta kanpoko soinuak.

~Ezer ez.

2) – Hitz egin- Nola komunikatzen da haur jaioberria?

~Begiradaren bitartez.

~Negarra eta begiradaren bitartez.

=Negarraren bitartez.

3) – Hitz egin- Haurra jaiotzen den unetik...

~...gai da bere ama-hizkuntza beste hizkuntzetatik bereizteko.

~...ez da gai bere ama hizkuntza beste hizkuntzetatik bereizteko.

=...gai da komunikatzeko eta bere ama hizkuntza beste hizkuntzetatik bereizteko.

4) – Hitz egin- Zein hilabetetik aurrera gutxi gora behera uzten dio haurrak unibertsala izateari? Unibertsala = soinu guztiaz bereizteko gai da (hizkuntza desberdinetako soinuak)

=10. hilabetean.

~6. hilabetean.(hasten gara unibertsalak izaten)

~Jaiotzen denetik.

5) – Hitz egin- Hasiera batean, zergatik hasten da haurra seinalatzen?

=Helduei imitatzen dielako.

~Zerbait adierazi nahi duelako.

~ Imitatzen duelako eta zerbait adierazi nahi duelako.

6) – Hitz egin- Zer da *lengoiaren leherketa* ?

=Haurrak, denak izen bat duela ohartzea hitzak esanahiarekin lotzen dituelako.

~Haurra hitz egiten hastea.

~Haurrak unibertsala izateari uztea.

7) – Hitz egin- Haurrek, gutxi gora behera, 18 hilabete dituztenean zenbatero ikasten dute hitz berri bat?

~2 orduro.

~60 minuturo

=90 minuturo

8) – Hitz egin- Hizkuntza bat ikasteko garaian garrantzitsua da...

~...errepikapena

~...imitazioa.

=...errepikapena eta imitazioa.

9) – Hitz egin- Bi esaldi hauetatik zein da zuzena:

=Haurrek, jaiotzen direnetik, badakite elkarrizketa baten hartu-emana identifikatzen.

~Haurrek, hizkuntza bereganatzen dutenean bakarrik hasten dira elkarrizketa baten hartu-emana identifikatzen.

10) – Hitz egin- Bi esaldi hauetatik zein da okerra:

=Gizakia da hitzen bidez espresatzen den espezie bakarretako bat.

~Haurra komunikatzeko prest jaioko da.

11) – Hitz egin- Hitz berriak ikasteko garaian zerk laguntzen du?

~Tamainak

=Formak

~Koloreak

12) – Hitz egin- Zein da hizkuntza guztietan errepikatzen diren zizekadurak?

~ba, ma

~ba, pa

=ba, pa, da, ma

13)!!!!!!! – Hitz egin- Haurra jaioberria izatetik haurtzarora, gutxi gora behera, zein momentutan pasatzen da?

=18 hilabete eta 2 urte bitartean

~6 hilabete eta urte bete bitartean

~urte bat betetzen duenean

14) – Hitz egin- Haurra zenbat hilabeterekin hasiko da hitz solteak esaten?

~24 hilabete dituenean

~6 hilabete dituenean

=12 hilabete dituenean

15) – Hitz egin- Hizkuntza bereganatzerakoan zerk dauka garrantzia?

~Abestiak

=Jolasak eta abestiak

~Biak okerrak dira, ez baitute hizkuntza bereganatzearekin inolako harremanik.

16) – Hitz egin- Haurrak zenbat hitz menderatzen ditu 2 urte dituenean?

~1000 hitz

=300 hitz

~500 hitz

17) – Hitz egin- Nola suertatzen zaie hurrei errazago komunikatzea?

~Soinu bidez

~Begirada bidez

=Keinu bidez

18) – Hitz egin- Haur batek zein hitz barneratzen ditu errazago?

=esanahia duten hitzak.

~esanahirik ez duten hitzak

~hitz guztiak berdin barneratzen ditu

19) – Hitz egin- Haur jaoiberriak zergatik ezin ditu soinuak egin?

~Hortzik ez duelako

~Masail-hezurra koordinatzen ez duelako

=Laringea goikaldean duelako

20) – Hitz egin- Zein momentutan hasten da haurra keinuak egiten?

~5 hilabete dituenean

=3 hilabete dituenean

~urte bat betetzen duenean.